

Txomin Txikito

Joanes Urkixo

Gaur goizean Txomin Txikito gose handiz esnatu da.

—Hau da hau gosea! —dio sabela igurtziz—. Bapo eta bete-bete egin arte gosalduko dut.

Izan ere, den-dena jan du Txominek: hiru kilo fruta, bi pakete gaileta maria, liberako ogi bat margarinaz, zazpi madalena eta erdi, litro pare bat kolakao eta atzoko afaritik sobratutako arrautza frijitua. Baina gizajoa goseak amorratzen dago oraindik.

—Izan ere, gose naiz oraindik —baiez-tatu du kultur handiz—. Gazta lodi-lodi bat jango nuke gustura.

Baina ez dauka gaztarik. Beraz, berokia jantzi eta dendara doa.

—Emadazu gaztarik lodiena, mesedez —diotso dendako andreari, adeitasunez.

—Gazta lodirik ez daukat —erantzun du honek—. Sagu-gaztatxoak besterik ez.

Txomin oso nahigabetuta dago.

—Hala demontre! —hots egin du, buruan hazka eginez—. Non izango ote da gazta eder handi bat?

Orduan, bere amamatxoak aspaldi kontatu zion kontu bategaz gogoratu da.

—Ilargian! Izan ere, Ilargia gazta bat da.

Pozaren pozez, txapel hegalaria, munduan beste inork ez daukan txapel berezia, hartu eta buruan jarri du.

Buztantxoari tira egin dio, eta txapela ero moduan bueltaka hasi da. Handik laster Txomin itsas gainetik hegan doa.

—Hau da hau ur piloa! —dio, harrিতa—. Euria gogotik egingo zuen, bada, hau guztia betetzeko!

Itsasoa amaitzen den mugaraino heldu da, baina... aurrerago ere bada itsasoa!

—Hemendik oker nabil —esan du bere golkorako—. Izan ere, Ilargia goigoian da.

Lainoetan buru-belarri sartu eta, tartetxo baten ondoren, Ilargira heldu da. Lodi-lodia da, eta gaztazkoa, berari gustatzen zaion bezala.

—Egundoko betekada hartuko dut —pentsatu du, ahoa urturik daukala—. Baina nondik hasiko naiz?

Esploratzeari ekin eta, hara non, Ilargiko azala gauzaz beterik dagoela aurkitu du: globoak, bizikleta-pedalak, tren elektrikoak, mortadela ogitartekoak eta abar luze bat. Bai arraro eta bitxia!

—Izan ere, hau oso arraroa da —adierazi du, susmoz.

Baina gaixoa goseak eraginda dagoenez, azkenean, garbi samar dagoen tontortxo bat hartu eta tripi-trapa jan du.

—Mm, mm! —hots egiten du, ahoan gozatuz—. Zeinen ederra! Erratza edukiz gero, hau guztia garbitu eta jaten jarraituko nuke.

Baina orduan krokodilo berde triste bat dator.

—Geldi, Txomin, mesedez —diotso—, ez ezazu Ilargia jan.

—Zergatik, bada? On-ona dago eta.

—Ilargia nire etxea delako —erantzun dio krokodiloak.

—Bada, zeinen zikina daukazu zure etxea, lagun! —kritikatzen dio Txominek, lurreko gauzak seinalatuz.

—Hauek guztiak Lur planetako gaztetxoei galtzen zaizkien gauzak dira. Denak hemen agertzen dira. Kopetaraino naukatela aitortu behar dut.

—Tira, tira, hau dela edo bestea dela, nik Ilargia jango dut —tematu da Txomin, tripek karraska egiten diotela sentituz.

—Ezetz, ezetz, mesedez —erregutu dio krokodiloak kezkatutik—. Ilargia jaten baduzu, nola jakingo duzu noiz den egun argia eta noiz den gaua?

—Kontxo, egia da! Izan ere, arrazoa duzu.

—Eta gainera —jarraitzen du krokodiloak—, Ilargiak gozo-gozo lo egiten lagutzen dizue.

—Hara, nola da hori? —galdetu du Txominek, jakinguraz.

—Lur planetako jendea lo dagoenean, Ilargia pertsianako zirrikitutik sartzen da, buruan laztan egiten die, eta amets politik eragiten dizkie.

—Nik, behin batean, amets polit bat egin nuen —gogoratzen da Txomin emozioz—. Beharbada, Ilargiatatik izango zen.

Eta noski, orain pena handia ematen dio jateak. Baina, zer egingo ote du? Gero eta gose handiagoa dauka eta.

—Goseak bazaude, esan eta kito —eskaini dio krokodiloak.

—Esango dizut, bada. Izan ere, gose-



PERE GINARD.

ak nago —erantzun du Txominek, sufri-
 mendu aurpegiaz.

Krokodiloak poltsa txiki bat atera du
 bere tximurdura berdeen artetik, eta
 eman egin dio.

—Honekin gosea baretuko dudala us-
 te baduzu... —dio Txominek susmotan,
 poltsa barruan begiratzuz.

—Krokodilo-malkoak dira. Mundu
 guztira esportatzen ditugu.

Txominek karamelu biribiltxo bat at-
 era du. Begira eta begira ari zaio. Pa-
 zientziaz azaltzen dio krokodiloak:

—Hara, Txomin, krokodilook oso ne-

gartiak gara. Hau da, malko asko botat-
 zen dugu. Eta malkoekin karameluak
 egiten ditugu.

—Tira bada... —Txominek karamelu
 guztiak jarraian jan ditu. Ezin gozoago-
 ak daude, eta gainera gosea kendu diote.

—Izan ere —berretsi du Txominek—,
 gosea kendu didate.

Ondoren, lagun berriari agur esateko
 ordua heldu da. Krokodiloak eskua as-
 tintzen du, malko loditxo bat erakutsiz.

Hara doa Txomin bere txapel hegala-
 riarekin. Nekaturik baina pozik heldu da
 etxera.

—Eta orain lolo, bada ordua eta.

Pijama jantzi, hortzak garbitu eta gero
 leihotik begiratu du. Ilargi argitsua ñir-
 ñir ari da zeruan.

—Gau on, krokodilo.

—Gau on, Txomin!

Ondoren gustura baino gusturago sar-
 tu da ohera. Lagun berri bat dauka eta
 zoriontsu dago. Gaur gauean, bera lo da-
 goenean, Ilargiak izpitxo bat bidaliko
 dio pertsiako zirrikitu batetik, eta bu-
 ruan laztan egingo dio.

—Izan ere —murmurikatzen du—,
 izan ere, amets ederrak egingo ditut.